

# txintxarri



## Lehen mailako norgehiagoka

Larunbateko Leganes-Eibar partidak aurrez aurre jarriko ditu bi lasarteoriatar: Txema Indias eta Mikel Martija kirol zuzendariak / 8-9

## Gazteak eta memoria

Bizikidetzak dituen erronkei buruz jardungo dute Usonek eta Gantxegik asteazkenean / 2

Gogoz astindu dituzte danborrak Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gaztetxoek / 6-7

Igandean jokatuko dute Donostiako 64. Nazioarteko Krosa, eta herritarrak izango dira korrika / 10



**aek**  
euskara praktikoa

## MATRIKULAZIOA ZABALIK eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2 eta C1 (EGA).
  - Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza mintza-saioarekin.
  - "On-line" aukera.
- Ordutegian malgutasuna.

Munnteri AEK euskaltegia  
Geltoki kalea 17, behea, 20160 Lasarte-Oria • 607 62 52 33 • lasarte@aec.eus  
www.munnteri.blogspot.com.es



Iker Uson, aurretik herrian egindako jardunaldi batzuetan. TXINTXARRI

## "Bizikidetzan bide polita egin du Lasarte-Oriak"

**IKER USON** BAKETIK-EKO KOORDINATZAILEA

Irene Gantxegi adituarekin batera, mahai ingurua egingo du tolosarrak datorren asteazkenean, Mirentxuenean. Gazteak eta memoriaren transmisioa izango ditu hizpide

### Adrian Garcia

Ongi ezagutzen du Lasarte-Oria Iker Usonek (Tolosa, 1979), bertako Bizikidetzeta Mahaiko dinamizatzailea izandakoa baita. Baketik fundazio ko koordinatzailea da, eta gazteek gatazkan izandako eskubide urraketa dakitena ikertu du. Hain justu, *Gazteria, memoria eta transmisioa* mahai ingurua gidatuko du, Irene Gantxegi adituarekin batera, datorren asteazkenean, 19:30ean,

Mirentxuenean. "Garrantzitsuena da gazteek ulertzea zer gertatu zen, gertatutakoa ez errepikatzeke".

### Araza bat al dago gazteei memoria transmititzean?

Beharrezkoa da arazoa bezala ez hartzea; erroka bat da. Arazoa orain gutxi arte izan dugu, indarkeria oso presente zegoenean. Oraindik arazotxo batzuk baditugu, baina lehen genuen sufrimendu maila asko baretu da. Oro har, memoriaren

inguruan dugu erroka, eta hor belaunaldi guztiak sartzen dira. **Etorkizuneko belaunaldiei memoria transmititzeak zer nolako garrantzia du?**

Haiek esango digute berraskidetzeak edo elkarbizitza berriak arrakasta duen edo ez. Alegia, nire semeak 10 urte ditu. Baina beste 20 bat dituenen, pentsatzen badu proiektu politiko-sozial-ekonomiko bat aurrera eramateko indarkeria erabili ahal dela, esan nahiko

du gure belaunaldiak ez duela lana ondo egin. Kontua ez da Euskal Herriaren edo Espainiaren aldeko borrokan ez erabiltzea indarkeria. Baizik eta gai nazionalaz aparte, beste edozein gaietan bitarteko horiek ez erabiltzea.

### Unibertsitateko ikasleekin ikerketa egin duzu, gatazkari buruz duten ezagutza aztertzeke. Zer emaitza atera dituzu?

Badaudela zer egiteko garrantzitsu batzuk; hutsuneak badaude jakindurian. Dena ondo jakiteak bermatzen al du gertatutakoa ez dela errepikatuko? Ez. Baina errazagoa da gertatzea ez badira ezagutzen giza eskubideen bortxaketen ondorioak.

### Zer nolako hutsuneez ari zara?

Gertakari latz batzuetaz galdetzean, ez dakit/ez dut erantzuten asko topatu ditugu. Miguel Angel Blanco edo Lasa eta Zabalar buruzko galderetan handia zen erantzuten ez zutenen kopurua. Nire interpretazioa da jakinduria faltagatik dela.

### Larria da unibertsitateko ikasle batek gertakari horiei buruz ez jakitea.

Bai. Hitzaldian datu gehiago emango ditut. *Miguel Angel Blanco ETak hil zuen?* galdera egitean, %40k ez zekiten edo ez zuten erantzun nahi. %53k aukera zuzena egin zuten. *Zure ustez zer da Lasa eta Zabala kasua?* galdetzean, %32k aukeratu zuten ez zekitelako edo ez zutelako erantzun nahi, baina %13k hautatu zuten ETak bahitu eta hil zituela. Hipercorren inguruan, %50k ez zekiten edo ez zuten erantzun.

### Kopuru handiak dira horiek.

Ez da gainera, denbora iragan delako, baizik eta ez delako ezagutzera eman. Historiako beste pasartei buruz, esaterako, Normandiako lehorreratzea,

Auschwitz... horrelako gertakariei buruz zerbait ikasi genuen.

### Hutsune horiek interes faltaren ondorio al dira?

Interesa ez da izugarrikoa. Genero indarkeria edo beste egoera sozial batzuk interes gehiago sortzen dute. Baina interesa badago. Halere, ez badira eskaintzak aurkezten, interes hori desagertu egiten da.

### Erroka horiek nola landu behar dira? Zer pisu du hezkuntzak?

Eskola ez da informazio iturri bat, ikerketan agertu denez. Hezkuntzan ez da ezer landu. Momentu gogorrenetan zaila izan da, orain ere polemika handia sortu du azken ekimenekin. Hezkuntzak badu zer egiteko; ez transmisio objektibo edo zehatza egiteko, aukerak emateko baizik, ikasleek irakurtzeko edo entzuteko. Ez dago kontakizun bakarra, egi bakarra. Baina testigantzak bildu daitezke, eta espiritu kritiko batekin ikasleen aurrean jarri, haiek gero bere ikuspuntua lantzeko.

### Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Mahaia dinamizatu duzu. Herri anitza izateak bultzatzen al du elkar ulertzea?

Pertsonak egiten dute errazagoa edo zailagoa bizikidetzarako espazioak sortzea. Lasarte-Orian doza bat pertsona prest zeuden arriskuak hartzeko, eta jende ezberdinekin parte hartzeko. Gipuzkoako herri txikiagoetan egon naiz, bi nortasun politiko nabarmen zeudenak, biak abertzaleak. Eta Lasarte-Orian baino zailagoa zen askotan. Oso bide polita egin du Lasarte-Oriak, bai EH Bildurekin, baita orain PSE-EErekin ere. Alkateek asko egin dute, Pablok [Barriok] eta Jesusek [Zaballosek], baina baita atzean lan egiten dutenek, isilpean.

## Elkarrizketaren garrantzia, elkarbizitzarako

Xuban Intxausti zuzendari lasarteoriatarren *In Dialogue* dokumentala eskaini zuten asteazken arratsaldean, Mirentxuenean. Ipar Irlandako gatazka ardatz hartuta, ikuspegi ezberdineko sei eragile eseri ditu mahai inguruan. Elkar ulertu eta errespetatzeko, elkarrizketari eman dio Intxaustik garrantzia. Parte hartzaileak arerioak izan dira, eta euren esperientziak eta bizipenak elkarbanatu dituzte. Guztiz itxi gabeko zauriak sendatzeko ariketa izan da.

Euskal Herriko egoerari ere egiten dio erreferentzia ikus-entzunezkoak; besteak beste, bertako egoeraz hausnartzeko osatu du lana lasarteoriatarrek. Elkarrizketa falta sumatu zuen Intxaustik, eta hori bultzatu nahi du dokumentalaren bitartez.

Hala ere, zail ikusten du Intxaustik formatu hori Euskal Herrira ekartzea, baina argi du konponbidea bide onetik doala, "nahiz eta presoen auzia" konpontzeko dagoen. Hurrengo astean egingo dute jardunaldiko azken saioa.

Hainbat herritar gerturatu dira *In Dialogue* dokumentala ikustera. TXINTXARRI



Langileak, protestan, joan den asteazkenean, Gipuzkoako Aldundiaren parean. TXINTXARRI

# Aldundiari negoziatzen uzteko eskatu diote

LAB eta UGT sindikatuek salatu dute Buruntzaldeko autobus gidariek bi urte daramatzatela lan baldintzak eguneratu gabe. Kontzesio berria eman artean Gipuzkoako Aldundiak ez du baimenik eman lan hitzarmen berria negoziatzeko

## Txintxarri

Urte batzuk daramatzate TSST, Garayar eta HASA enpresetako autobus gidariak lan hitzarmena negoziatu ezinik. Gipuzkoako Foru Aldundiak kontzesio berriak emateko aurreproiektua aurkeztu du, baina enpresek errekurtsoa jarri dute, eta ebazpenaren zain daude. Bitartean, ordea, langileek ezin dute lan hitzarmena negoziatu, eta autobusen flota berri gabe dute. Horregatik protesta egin zuten asteazken goizean hiru enpresetako langileek aldundiaren aurrean, Donostian. Erantzukizunak hartzeko, eta arazoa konpontzeko eskatu diote. Langileek haien eskubideak defendatzeko

mobilizazio gehiago iragarri dituzte.

LAB eta UGT sindikatuek salatu dutenez, aldundiak ez die enpresei lan hitzarmenak negoziatzen uzten, behin betiko proiektua onartu ezean. Izan ere, enpresek honakoa argudiatu dute: hurrengo kontzesioaren oinarrian bukatuta dauden hitzarmenak daude, eta hobekuntza ekonomiko eta sozialak jasoko dituen beste hitzarmen bat negoziatzea gaizki ikusiko luke aldundiak.

Enpresek aldundiaren baimena behar dute, beraz, hitzarmen berri bat negoziatzeko. Izan ere, adjudikazioa beste enpresa batek lortuz gero, eta langileak

autobus konpainia horretara igaroko balira, kontzesio berriarekin agian ezingo lukete hitzarmena bete. Horixe diote enpresek.

Modu horretan, kontzesio berriaren proiektuaren "bidegabeko atzerapenak" betebetan eragin die Buruntzaldeko autobus lineiei. Eta horrek, langileak eta zerbitzuaren erabiltzaileak kaltetu ditu. Azken bi urteetan langileek ez dituzte lan baldintzak eguneratu. Sindikatuak kezkatuta daude, oraindik kontzesioaren adjudikazioak denbora gehiago iraun baitezake. Hori dela eta, negoziatzeko baimena eskatu diote aldundiari.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIUZOLA

## Danbor hotsak

Sebastian bat ba omen da zeruan, Donostia bat eta bakarria munduan. Joan berria zaigu San Sebastian eguna eta baita 24 ordu horietan Raimundo Sarriegiri egiten zaion etengabeko omenaldia ere. Martxarekin batera beste hamaika pieza behin eta berriro entzuten dira Gipuzkoako hiriburuko kaleetan, bertako edo eta inguruko herriko ez bazara ulertzen zaila egiten den debozioarekin. Horretan jarri nahiko nuke arreta: Tafalla, Azpeitia, Lakuntza eta halakoetan sansebastianak ospatzen dira, baina bereziki Donostian, jakina. Baita inguru zabaleko herrietan ere ordea. Horietako bat, Lasarte-Oria. Txikitako oroitzapen polit askoak ditut Mitxelena ezinbesteko borondate onarekin nola egiten genituen entseguak Zumaburu auzoko etxepe batean. Danborrik ere ez genuen entseguetarako, lurra kolpatzen genuen bina makil hartuta. Ez zen gainera urtarrileko jai ospatzeko, sanpedroetan jotzeko baizik. Lasarte-Oria herri (ondo kostata izan arren) bihurtu aurretik bazuen Donostiaren itzalaren eragina eta ondoren ere bai: alferrik da, metropoliak ohitura asko sortzen ditu inguruan. Horregatik, ia ia donostiar denaren alegantziarekin gozatu dugu jai bitxi hori, egun bakar bat irauten duena (eskerrak! esango du batek baino gehiago, danbor hotsak ez direlako luzeegi ere komeni) eta eskubide osoz lasartearrok ere "geure" sentitzen duguna. Danbor hotsak entzunez edo sortuz "beti pozez, beti alai" kantatu berri dugunoi zilegi zaigu Sarriegiren piezekin barrunbea mugitzea.

## Euria egin edo ez, plaza dantza saioa antolatu dute iganderako

Muxikoak eta plaza dantza, igande eguerdian

### Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, plaza dantza eta muxikoak egingo dituzte igande eguerdian, Okendo plazan, 12:00etatik 14:00etara. Bi orduko iraupena du. Ttakunek gonbitea luzatu die herritarrei, parte hartzera animatu daitezten. Eguraldi txarra egingo balu, BMko aterpean egingo dute dantzaldia.



Plaza dantza, Okendon. TXINTXARRI

**AZKEN 2 PLAZAK**

# Thailandia

**IRTEERA 2019ko MAIATZEAN**  
Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

**NOAOA**  
BIDAIAK

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

**LaSalle Berrozpe**  
**LSB**  
Andoain

Urtarrilaren 28tik Otsailaren 8ra

**2019 · 2020 MATRIKULAZIOA**

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza  
eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**HAUR HEZKUNTZA**

**LEHEN HEZKUNTZA**

**ETORKIZUNERAKO BIDEAN!**

**DBH + DIBERTSIFIKAZIOA**



Lasarte-Oriako Udaleko eta FCCko ordezkariak makineria berria aurkeztu dute, Loidibarren pilotalekuan. TXINTXARRI

## Zerbitzu berria aurkeztu dute, kaleak garbitzeko

Lasarte-Oriako Udalak FCCrekin hitzarmena egin du. Tresneria elektrikoa erabiliko dute zerbitzua egiteko, soinuak sahiesteko. Kaleak garbi mantentzeko kontzientziario kanpainak ere egingo dituzte. Lehen, 'Lasarte-Oria, Argi eta Garbi' izango da

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko eta FCC enpresako ordezkariak kale-garbitzua zerbitzua egingo duten tresna eta ibilgailu berriak aurkeztu dituzte.

Udal gobernuak kale-garbitzua arazoa konpontzea zuen lehentasunetako bat. Jesus Zaballos alkateak agerraldian azaldu duenez, garbitzua ez zegoen herriaren beharretara egokitua eta makineria zaharra zen. "Herria handitzen zihoan, eta auzo berriak ez zeuden bertan islatuak. FCCri makineria eskatu behar genion beharra zegoenean."

Horregatik, esleipen berria jarri zuen martxan. FCCk lortu

du kontratua, 1.018.158 eurogatik. Pertsonal kopurua handitu da. Asteaz zehar hamasei langile izango dira eta hiru asteburuetan.

Ibilgailu eta tresneria guztia berritu da, hauen kopurua handituta. Eskobatzeko hiru makina egongo dira, bi haizemakina, lurra garbitu eta dekapatzeko makina berria dago, baita fatxada eta lurrak garbitzeko kamioi berria ere.

Ingurumena zaintze aldera, ibilgailuak hibrido edo elektrikoak dira, eta haizemakinak elektrikoak dira. Honek gainera, herritarren soinuarengatik keak konponduko ditu.

Zerbitzu honi esker, Lasarte-Oriako auzo guztiak egunero garbituko direla azpimarratu du alkateak.

Kaleaz garbitzearekin batera, enpresak kaleak garbi mantentzeko hainbat kontzientziario kanpaina aurrera eraman beharko ditu.

*Lasarte-Oria, Argi eta Garbi! Guztion kontua da* izena du lehenengoak. Herriko etxebizitzetan liburuxka bat banatuko dute, baita informatzeko material ugari ere.

Kale-garbitzeko ibilgailuek ere kanpainako logoa eramango dute. Guzti horren bitartez, herritarrek gonbidatu nahi dituzte herriko kaleak garbi mantentzera.



Batzar irekiko irudia. EH BILDU

## Batzar irekia egin du EH Bilduk, bozetarako hautagaiak onesteko

Hilaren 27ra arteko epea dago hautagaiak aurkezteko. Bakarra izanez gero, automatikoki izendatuko lukete

### Txintxarri

Gutxi falta zaio Lasarte-Oriako EH Bilduri hautagaiak aurkezteko. Urtarrilaren 17an, ostegunean, batzar irekia egin zuten Mercerero gunean, proposatutako zerrenda onesteko.

Batzarrean orain arteko ibilbidea azaldu zuten. Urrian eta azaroan finkatu zituzten zerrenda osatzeko irizpideak. Lantalde bat ere martxan jarri zuten zerrenda osatzeko, irizpide horiek kontutan hartuta. Horren

emaitza aurkeztu zuten bilkuran: zerrendaburua eta hasierako postuetarako zerrendakideak. "Lasarte-Oria bizia egiten aritutako lagunez osatuta dago, baina udaletik eragiteko gogoarekin". Edonola ere, alkategaia aurkeratzeko prozedura ez da amaitu. Hautagai berriak aurkeztu daitezke oraindik. Urtarrilaren 27an hautagaitza bakarria egonez gero, automatikoki izendatuko lukete zerrendaburua.

## Duo Sarasateren kontzertua bertan behera geratu da

Danok Kide elkarteak gaur Brigitarren komentuan 19:30ean antolatua zuen Duo Sarasateren kontzertua bertan behera geratu da. Danok Kideko antolatzaileek jakitera eman dutenez, kideetako batek eginkizun profesionalak ditu. Musika Topaketetako arduradunek

ez zituzten herritarrek kontzerturik gabe utzi nahi, eta horregatik, ordeko talde baten bila ibili dira. Ezin izan dute gaurko ezer zehaztu.

Otsailaren 15ean, berriz, Duo Nebelek in egin dute hitzordua, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan. Debussyren heriotzaren mendeurrena dela eta, egile horren lanetan oinarritutako egitaraua eskainiko du klarinete eta piano bikoteak.

# EPA LASARTE HHI

2018-2019 ikasturtea

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
**Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**

HELDUEN HEZKUNTZA, OFIZIALA ETA DOAKOA

Tel. 943 36 66 08 / 943 37 64 43 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • [www.epalasarate.eus](http://www.epalasarate.eus)




Ordutegia:  
10:00-13:00  
17:00-19:00\*  
(\*ostiral arratsaldea itxita)





EAGIko ikasleak, eskola praktiko batean. EAGI



Lanerako behar dituzten trebetasunak eskuratzen dituzte zikloetan. EAGI

# Lasarte-Orian ere bada Fp Euskadi zikloak ikasteko aukera, EAGIn

Obra arduradun izateko goi mailako zikloa, edo erdi mailako beste bi ikasi daitezke. Lan aukera ugari dituzte hirurek

Eraikuntzak buelta asko eman ditu azken urteetan. Azken hamarkadako krisia gairatu du sektoreak, eta berriro hasi da suspertzen. Baina badu eskasi bat: langile prestatuak falta ditu. Horiek dira, hain zuzen ere, Lasarte-Oriako EAGI ikastetxeak prestatzen dituenak. Herritik bertatik atera gabe, eraikuntzako hiru ziklo eskaintzen ditu. Goi mailako Obra Enkargatu izateko bat, eta erdi mailako bi: Eraikuntza teknikaria, eta Obrak, Dekorazioa eta Birgaitzeko

teknikaria. "Enpresek egunero deitzen digute langile prestatuen bila, baina ez ditugu nahikoa ikasle", adierazi du Lidia Alcerreca zentroko zuzendariak. Ate irekiak jardunaldia egingo dute urtarrilaren 30ean, asteazkenean, 16:00etatik 19:00etara. Ez bakarrik ikasleentzako; jakin-mina duen oro gonbidatu du zuzendariak EAGIra: "Inolako konpromisorik gabe, lasai etortzera".

Lanbiderekin eraikuntza partekatzen du EAGIk, Donostia

Etorbidean bertan. Erakunde horretarako hainbat ikastaro ematen ditu, baina haren jarduna zabalagoa da. Euskadi Fp Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen sareko partaide da. Hori bakarrik ez: Gipuzkoan eraikuntza ikasi daitekeen bakarra da.

Lanbide Heziketa Dualari esker, ikasle askok lana egiteko aukera dute ikasi bitartean, soldata baten truke, noski. "Lehenengo urtetik aurrera dute horretarako aukera", ohartarazi du Alcerrecak.

Hiru dira eskaintzen dituzten zikloak. Goi mailakoak, Obrak Antolatze eta Kontrolatzeko goi mailako teknikariarenak, "eskari izugarria" dauka enpresen artean. "Enpresa handiak atzetik daude, enkargatuen bila. Egunero deitzen dute, baina ezin diegu zerbitzua eman, jenderik ez dugulako", dio EAGIko zuzendariak.

Izan ere, krisiaren ondotik eraikuntzako langile asko beste sektoreetara mugitu dira. "Orain

igeltsero, pladurista eta pintore asko falta dira".

Igeltsero eta barruko obren teknikari izateko bi kurtsoak dira erdi mailakoak. "Errazak eta praktikoak" dira, aproposa ikasketetan liburu artean denbora gehiegi ematea gustuko ez dutenentzat. "Dibertitu egiten dira ikasgelan". Izan ere, beheko solairuan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera dute.

Beste gauza asko aldatu dira denbora gutxian eraikuntzan; orain eraikitze modua bestelakoa da. "Kodigo teknikoa asko aldatu da. Igeltsero batek ikasi egin beharra du, ez da soilik lanean ikasten". Hain justu, energia aldetik eraginkorrak diren etxeak eraikitzen dira egun, Passivhaus deritzenak. "Energia gutxiago gastatzeko etxeak nola egin irakasten dugu".

**ERAIKUNTZAN LAN ASKO DAGO!!**  
Enkargatuak, Margolariak, Igeltseroak, Pladuristak...

**EAGI**

GIPUZKOAKO ERAIKUNTZA ESKOLA  
FP CONSTRUCCIÓN GIPUZKOA

**ATE IREKIAK**  
Urtarrilak 30  
16:00-19:00

Goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak  
**ERAIKUNTZA**

+INFO [www.eagi.eus](http://www.eagi.eus)  
943 569 222

# Danborra joaz, pozik eta alai

## Eguraldiak ez zituen kikildu

Sukaldariz josita zeuden ostiral arratsaldean herriko ikastetxeak. Mantal eta txano zuriak, galtza urdinak, kupel itxurako danborrak, eta instrumentu horiek gogor astintzeko, makilak eskuetan. Sukaldariak aurreko asteetan pazientziak eta irrikaz egosi zituzten *Donostiako Martxa*, *Tatiago*, *Iriyarena*, Lasarte-Oriaren eta Realaren ereserkiak eta beste hainbat kanta. Ostiralean eraman zituzten plateretara, eta guraso zein lagunei eskaini. Eguraldi iragarpenak ez ziren batere onak, baina ia ez zuen euririk egin; tantatxo batzuk baino ez. Horrenbeste entseatu eta gero, ur pixka batengatik ez ziren kikilduko irakasle eta ikasleak, eta aurreikusitako tokietan astindu zituzten danborrak: Sasoeta-Zumaburuko txikiek, Isla Plazan; Sasoetan ikasten duten Lehen Hezkuntzako ikasleak, patioan; Garaikoetxea-Landaberriko haurrek ere, patioan; eta, Landaberri LHko ikasle eta irakasleak, anfiteatroan. Azken biek gune estaliak dituzte, eta, euria egin arren, normalean hor jotzen dute. Komeriak izan dituzte kazetari eta argazkilariek danborradetan sartzeko, ahaide mordoak zeudelako ekitaldi horiek ikusten.



Sasoeta ikastetxeko txikiek Isla plazan egin zuten emanaldia. TXINTXARRI



Zuzendari ugari izan ziren ikastetxeetako emanaldietan. TXINTXARRI



Landaberriko gazteek Lasarteko martxa jo zuten, eta doinuaren egile Jokin Goenagak danbor jole...



Ikastetxeetako haur eta gazteek ederki astindu zituzten danborrak. TXINTXARRI



Txikiek adi-adi jarraitzen zituzten zuzendariaren esanekoak. TXINTXARRI



Ederki abestu zituzten hainbat doinu Landaberri LHko gazteek. TXINTXARRI



ISAAC FARRÉ RICO

## Mitxelo Olaizolari omenaldia

Urtarrilaren 20ean, igandean, lasarteoriatarak izan ziren hainbat danborradetan, San Sebastian eguna ospatzen. Omenaldi ugari izan ziren, eta horietako batean, Mitxelo Olaizola herritarra izan zen protagonista.

Beti Errealako danborradak urtero Realeko kide bati egiten dio omenaldi txikia; aurtengoan tresnazain izandakoaren txanda izan da. Iñigo Uriarte danborragusiak txapela eta zapia jarri

zizkion Mitxelorri. Pozik hartu zuen omenaldia herritarrek, eta eskerrak eman zizkien berarekin gogoratzegatik.

Ezusteko modura, danborradako hainbat kidek ere harekin 2002-2003 denboraldian Balaidosen ateratako argazkia oparitu zioten. Mitxelo 37 urtez Donostiako futbol taldeko tresnazain izan eta gero, 2018ko abuztuaren 6an erretiroa hartu zuen. Jokalariek ere omenalditxo egin zioten orduan.

gaztetxoak zuzendu zituen. TXINTXARRI



Eguraldiari aurre egiteko, umore ona eta danborradaren doinu alaiak. TXINTXARRI



Sasoetako guraso elkarteko kideek haur eta gaztetxoak lagundu zituzten. TXINTXARRI



Guraso eta ahaideen aurrean, danborradako doinuen erritmoa ederki jarraitzen dutela erakutsi zuten Sasoetako gazteek. TXINTXARRI

# Lasarteoriatarren derbia

Leganesek eta Eibarrek indarrak neurtuko dituzte larunbatean. Batez ere bi herritar egongo dira partida arretaz ikusten. Txema Indias Leganeseko kirol zuzendaria, eta Mikel Martija Eibarkoa. Biak hasi ziren futboleko Michelinen, eta ibilbide arrakastatsua egin dute ligako lehengo mailan

## "Fitxaketa arrakastatsua izatea beti da loteria bat"

**TXEMA INDIAS** LEGANESKO KIROL ZUZENDARIA

Lehenengo mailako talde txikiek berebizikoa dute ongi fitxatzea, talde dirudunen aurka lehiatu ahal izateko. Horretaz arduratzen da Indias Leganesen 2015. urtetik

**Adrian Garcia**

Bigarren mailan hartu zuen taldea, eta hirugarren urtea du lehen mailan. Leganes talde txikia izanik, munduko onenekin lehiatzeko tentuz hartu behar dituzte erabakiak. Hortaz arduratzen da Txema Indias (Lasarte-Oria, 1971). Michelin zelaian hasi zen futboleko, eta Bigarren B Mailan makina bat partida jokatu ondoren, eliteko kirolean jarraitzen du; bulegotik zuzentzen du orain kirol taldea.

Sailkapenaren beheko zatia estu dago, eta Eibarren aurka "partida zaila" aurreikusten du Indias. "Azken norgehiagoka irabazita gora begiratzen hasi da Eibar. Desberdintasunak oso txikiak dira liga honetan". Estatistika eta zenbakiak begiratu zalea da herritarra, nahiz eta oraingoan ez izan haren aldekoak. "Lehen mailan oraindik ez diogu irabazi Eibarri".

Azken partida galdu arren, ongi jokatu zuen Madrilgo taldeak Bartzelonaren aurka. Estu hartzea lortu zuen, eta jokaldi polemiko bat tarteko aldendu ziren katalanak markagailuan. Edonola ere, zantzu baikor batzuk ikustarazi ziren. Neguko merkaturan eginiko fitxaketetako batek, Martin Braithwaite Danimarkako jokalaria, gola sartu zuen. Kirol zuzendariari egozten zaio fitxaketa baten errentagarritasuna, haren ardurapean baitaude kirolariei buruzko txostenak: "Jokalaria bat fitxatzen duzunean espero duzu beste taldeetan jokatu duen antzera egitea zurean. Baina denok hartu dugu ezustea, Braithwaite oso azkar moldatu delako hemen". Lau egunen buruan Santiago Bernabeu eta Nou Campen gola sartu du jokalaria.

Futbolari buruzko txosten horiek egiteko, ezinbestekoa

izan ohi da zuzenean jokatzeko ikustea. Baina beste informazio osagarriak ere bilatzen dituzte, ikusteko taldean ongi txertatuko ote den. "Informazio pertsonala, psikologikoki nolakoa den...". Halere, emaitza beti "loteria bat" izaten da. "Aldagelara, hirira, taldera... ohitu behar da, familiarekin batera. Erantzunik ez duten galdera asko daude".

Urte "gogorra" kudeatu behar izan du Indias. Izan ere, Asier Garitano entrenatzailea fitxatu zuen Realak. "Leganesekin historia egin du. Haren inguruan antolatzen zen dena". Ez zuten ongi hasi denboraldia, baina "pazientziarekin" irauli dute egoera. Hain justu, Garitanok Donostian izan ez duena. "Oso triste jarri nintzen kaleratu zutela ikustean. Futboleko berehalako emaitzak nahi izaten dira".

Halere, Indias ez da Leganesen dagoen herritar bakarra. Aurten Joseba Ituarte fitxatu dute,



Ituarte eta Indias, Butarquen. LEGANES

atezainen entrenatzaile gisa. Aspaldi ezagutzen dira elkar biak; aldagela berean ere egon dira. Michelinen eta Texas taldean aritu ziren txikitik.

**Michelinetik Leganesera**

2013. urtetik Thailandian egon da Ituarte, Bangkok hiriburuko talde batean. "Futbolak arau berberak ditu toki guztietan, baina presioa eta exijentzia handiagoa da Espainiako ligan", kontatu dio TXINTXARRI-ri.

Talde "familiarra" aurkitu du Ituartek. "Taldearen ardatza Bigarren B mailako jendeak osatzen du. Oso ondo hartu naute

denek, baita Mauricio Pellegrino entrenatzaileak ere". Gustura dago gainera, atezainek duten mailarekin. Bere garaian atezain izandakoa da Ituarte, baina onartu du orduetik asko aldatu dela futbola. "Orain oinek oso ongi moldatu behar dute".

Edonola ere, larunbateko partidaren beste lasarteoriatar bat ere izango da: Mikel Martija. Harreman oso ona dute bi kirol zuzendariak. "Profesional bikaina da. Langile amorratua, eta behetik hasi da hura ere". Desio bakarra du Indiasen denboraldi amaierarako: Eibarrek eta Leganesek mailari eustea.

**MAiTE**  
ESTETIKA ARETOA

*Zaindu ezazu zure azala!*

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratuko dugu

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Lasarte-Oria euskalduntzen lagundu nahi duzu?  
Jalgi taberna alokatzen du Ttakun Kultur Elkarteak.  
Interesa baduzu jarri gurekin harremanetan:



•Geltoki kalea 4-ko bulegora etorri. Telefonoz 943 371 448 zenbakian.  
•Emailaz ttakun@ttakun.eus helbidean.



# "Astero hitz egiten dut Txema Indiasekin"

**MIKEL MARTIJA** SD EIBAR KLUBEKO IDAZKARI TEKNIKO

Leganes-Eibar partida "orekatua" ikusten du herritarrak. Santander liga ere adjektibo horrekin deskribatzen du. "Denboraldi honetan kiniela asmatzea oso zaila da"

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Urte osoan dabil lanpetuta Mikel Martija (Lasarte-Oria, 1988), baina asteotan apur bat gehiago. Neguko merkatua irekita dago hilaren 31ra arte, eta fitxaketak egiteko premiarik ez badute ere, oso erne daude. "Elitean ari gara konpetitzen; ezin dugu beste aldera begira egon, ezin gara despistatu".

Ezin dira despistatu bulegoan, ezta zelaian ere. Gori-gori dago Santander liga: 11 talde daude sei puntutan. Horietako bat da Eibar. 25 puntu bildu ditu orain arte. Azkeneko hiruak, astelehenean, Espanyoli 3-0 irabazita. "Ez geunden kezkatuta, baina bageneukan puntuak hiruak ez pilatzeak sortzen dizun segurtasun falta hori", nabarmendu du Martijak. "Fase on batean dago taldea, ongi ari da jokatzeko, baina merezi baino puntu gutxiago zakuratu ditu".

Eibarren tren berean bidaiatzen du Leganesek, baina hiru bagoi atzerago. 22 puntu dituzte zorroan madrildarrek. Elkarren aurka jokatu dute bi taldeek bihar, 18:30ean, Butarquen (Madril). "Oso neurketa pertsua izango dela uste dut: biek dauzkate armak aurkariari min egiteko. Ea guk gureak baliatzen ditugun". Joaneko neurketan gipuzkoarrek

irabazi zuten, 1-0. Oraindik asko falta da liga bukatzeko, baina partida guztiak final kutsua hartzen ari dira, oso orekatua dagoelako liga. Jauzi ederra emango lukete armaginek bihar irabaziz gero. Galduz gero, Leganesek harrapatu egingo luke Eibar, eta are gehiago estutuko litzateke sailkapena. "Dinamika onak mantentzea zailagoa da aurten, edonork daukalako gaitasuna edozeinen zelaira joan eta hiru puntuak bueltan ekartzeko, edo maila altueneko taldeak etxean estu hartzeko: Real Madrili irabazi diogu guk, eta Bartzelonari Leganesek, adibidez".

## Aurten, "lasaiago"

"Puntuz eskas genbiltzan pasa den denboraldian neguko merkatua irekitzeko, eta tentsio gehiagorekin egiten genuen lan. Lasaiago gabiltza aurten", dio Martijak. Jose Luis Mendilibar entrenatzailea "konforme" dago daukan jokalaritza taldearekin, eta ez dirudi fitxaketarik egingo dutenik. Horrek ez du esan nahikoa egiten ez dutenik; jokalariek askoren informazioa pilatzen jarraitzen dute. "Oso azkar aldatzen dira gauzak, egun batetik bestera batzuetan, eta, norbait fitxatu beharko bagenu, prest

gaude". Fran Garagarzarekin batera egiten du lan herritarrak. Sei urte daramatza karguan. Entrenatzaile gisa hasi zen Eibarren, baina Garagarzak berehala ikusi zuen Martijak gaitasuna zuela idazkari tekniko gisa aritzeko.

Eibarrek ez du inor ekarri merkatu honetan. Leganes, ordea, dezente mugitu da: Martin Braithwaite aurrelaria eta Vasyl Kravets ezker hegaleko atzelaria fitxatu ditu. Beste lasarteoriatar bat arduratzen da operazio horiek egiteaz: Txema Indias. "Oso harreman ona" dauka Martijak berarekin. "Astero-astero hitz egiten dugu telefonoz, gure taldeen partidei buruz hitz egiteko, jokalariez, futbolaz oro har... Elkar laguntzeko prest gaude".

Eibar eta Leganes antzera iritsi dira elitera. Kategoria apalagoetan urte askoan aritutakoak, talde "txikiak", erraldoi artean tokia egin dutenak. Bosgarren urtea dute lehen mailan gipuzkoarrek, eta hirugarrena madrildarrek. Jokalariak fitxatzeko daukaten ahalmena ere ez da oso desberdina, eta, Martijak dioenez, behin baino gehiagotan futbolari bera interesatu izan zaie bie. Adibidez, Martin Braithwaite. "Duela hiru urte ezagutu nuen aurrelari hori, Toulouse taldean jokatzeko



Duela sei urte hasi zen Mikel Martija idazkari tekniko lanak egiten. SD EIBAR

zuenean. Oso balorazio ona egin genuen bere garaian, eta Leganesek fitxatu du orain. Txemak ere guk fitxatutako jokalaritza baten baina gehiagoren informazioa ere baditu, ziur".

Beste herritar batek ere egiten du lan Leganesen. Lehen taldeko atezainak prestatzen ditu Joseba Ituartek. "Ezin izan dut pertsonalki

ezagutu, lehen itzuliko partidaren nire familiako zenbait kide txikia zenetik ezagutzen dute; oso pertsona jatorra eta langilea dela esan didate beti".

Leganes-Eibar neurketaren emaitza edozein izanda ere, argi dago gauza bat: Lasarte-Oriak irabazi egin du.



600 857 586

www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)

Banatzaileria ofiziala

**Miele**

- **ARROPA-GARBIGAILUA**  
TwinDos WIFI-arekin,  
merkatuko dosifikazio sistema hobereana
- **LEHORGAILUA**  
Classic Active eta Edition Eco
- **ONTZI-GARBIGAILUA**
- **HOZKAILUA**
- **LABEA**
- **PLAKA**

**EMAITZA EZIN HOBEAK GUTXIENKO KONTSUMOAREKIN.**  
Alemaniar kalitatea garrantzizko gauzentzat



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

# Lasarteoriatarrak, nazioarteko krosean

Jon Presa, Raul Gomez Margallo eta Gorka Gil nazioarteko atletekin batera izango dira irteeran. Europa, Afrika eta Asiako korrikalariak izango dira Hipodromoan igandean. LOKEko gaztetxoek ere parte hartuko dute. Euriari eta hotzari aurre egin beharko diote

## Txintxarri

Urtarrileko azken igandea iritsi da, eta ohitura den legez, Donostiako Nazioarteko Krosa jokatu dute. 64. edizioa honetan hiru kontinenteetako atletak izango dira lehian. Horieta batak, gainera, Europa, Asia edo Espainiako txapelketetan dominak eskuratu dituztenak. Lasarte-Oriak ere izango du bere ordezkaria. Nazioarteko lasterketak baino lehen, maila guztietako probak ikusi ahalko dituzte zaletuek. Guztiek lokatzari, euriari eta hotzari aurre egin beharko diete.

12:30ean hasiko dira lasterketa nagusiak. Antolatzaileek Espainiako atleta baten garaipena bilatu nahi izan dute emakumeetan. Espainiako eta Europako txapelketetan lehen postuetan izan diren Maitane Melero, Irene Sanchez-Escribano, Elena Garcia, Alessandra Aguilar, Maria Jose Perez Escribano, Azucena Diaz, Zulema



Nazioarteko atletak izango dira euria, lokatza eta hotzari aurre egiten. TXINTXARRI

Fuentes-Pila, Carla Gallardo, Maria Pia Fernandez uruguaitarra eta Belen Casera argentinarra izango dira irteeran.

Gizonezkoetan, aldiz, nazioarteko korrikalariak izango dira. Europa, Asia eta Afrikako lehiakideek garaipena bilatuko dute. Favoritoen taldean Ayad Lamdassem, Fernando Carro,

Housame Benabbou, Hassan Chani eta Albert Rop bahraindarrek eta Tesfaye Deriba etiopiarra daude.

Bi lasterketa nagusi hauetan, Euskadiko master txapelketa ere jokatu da. Aurretik, 10:30ean, Master 55+ mailakoa izango da jokoan. Gipuzkoako kros Txapelketa rako

puntuagarriak izango dira proba guztiak.

Lasarte-Oriako korrikalariak ere nazioarteko atletekin neurtuko dituzte haien indarrak.

Trinko taldeko Jon Presak Mugerza krosetako esperientzia errepikatuko du, eta senior mailan lehiatuko da; master mailan berriz, Raul Gomez Margallo eta Gorka Gil izango dira.

Horiez gain, LOKEko eskolarteko mailako hainbat korrikalarik parte hartuko dute benjamin, alebin, infantil eta jubenil mailako lasterketetan.

Zaleek garrantzia handia dute nazioarteko krosean, horregatik antolatzaileek aurrez jarri dituzte sarrerak salgai. Bihar arte Gipuzkoako Atletismo Federazioan eta Donostiako Robers kirol denda 6 eurotan salduko dituzte. Igandean bertan, Hipodromoko txarteldegian eskuratu ahalko dira, 10 eurotan. 12 urte baino gutxiagoko haur eta gaztetxoek sarrera dohainik izango dute.

## Gipuzkoako txapelketa

Bestalde, LOKEko atletek Gipuzkoako absolutu mailako txapelketa lehiatu zuten urtarrilaren 12an, eta hainbat domina eskuratu zituzten.

Naroa Furundarena bigarren izan zen luzera jauzi eta jauzi hirukoitzean. Enara Gonzalez eta Oihana Igarrizek berriz, zilarrezko domina lortu zuten luzera jauzi eta pisu jaurtiketan.

## Ordutegia eta proben luzera

**10:00etan:**  
• Nesken 18 urtez azpiko proba 3.600 m.  
• Nesken 20 urtez azpiko proba 4.600 m.

**10:30ean:**  
• Mutilen 18 urtez azpiko proba 4.600 m.  
• Master M 55+ proba 4.600 m.  
• Mutilen 20 urtez azpiko proba 5.600 m.

**11:00etan:**  
• Infantil nesken proba 1.600 m.  
• Nesken 16 urtez azpiko proba 2.600 m.

**11:20ean:**  
• Infantil mutilen proba 2.600 m.  
• Mutilen 16 urtez azpiko proba 3.600 m.

**11:45ean:**  
• Alebin nesken proba 1.600 m.

**12:00etan:**  
• Alebin mutilen proba 1.600 m.

**12:15ean:**  
• Benjaminen proba 600 m.

**12:15ean:**  
• Emakumeen senior eta 23 urtez azpiko proba 8.600 m.  
• Emakumeen master proba 4.600 m.

**13:15ean,**  
• Gizonezkoen senior eta 23 urtez azpiko proba 10.600 m.  
• Gizonezkoen master proba 4.600 m.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Urola</b> Igandea. 11:45. Michelin Kirol gunean.
<b>ERREGIONALEN GORENGOA</b>
<b>Astigarraga Mundarro FKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Zakurmendegi, Astigarragan.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Kostkas KE</b> Igandea. 10:00. Michelin Kirol gunean.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Mondragon CF</b> Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.
<b>JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA</b>
<b>Sanpedrotarra FE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Trintxer, Pasaian.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Astigarraga Mundarro FKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 09:30. Zakurmendegi, Astigarragan.
<b>KADETEEN 1. MAILA, KOPA</b>
<b>Ostadar SKT B - Danena KE A</b> Larunbata. 12:30. Michelin Kirol gunean.
<b>Danena KE B - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 11:45. Elbarrena, Zizurkilen.

<b>INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA</b>
<b>Eibar SAD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:00. Unbe, Eibarren.
<b>INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA</b>
<b>Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT</b> Igandea. 09:00. Berio, Donostian.
<b>INFANTILEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A- Lengokoak KE A</b> Larunbata. 14:00. Michelin Kirol gunean.
<b>Texas Lasarte CF - Billabona KE</b> Larunbata. 11:00. Michelin Kirol gunean.
<b>Aralar Intxurre KKE - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 09:30. Elorri, Alegin.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>HERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Insausti taberna - Viña del Mar</b> Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
<b>Izengabe - Academia London</b> Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
<b>Bar Buenetxea - Trumoi Taberna</b> Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
<b>Avenida Taberna - Asador Irigoien</b> Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
<b>GIPUZKOAKO SENIORRA</b>
<b>Aldaz Klinika - Oiartzun</b> Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.

<b>Garoa Taberna - BaiReformas Idiazabal</b> Ostirala. 20:50. M. Chourraut kiroldegian.
<b>GIPUZKOAKO JUBENILAK</b>
<b>Antigua Luberrri KE - Bar Lasarte</b> Igandea. 10:20. Pio Baroja Kir., Donostian.
<b>GIPUZKOAKO KADETEAK</b>
<b>Arizmendi Eskoriatza - Balerdi Harategia</b> Larunbata. 10:00. Ibarra Kir., Aretxabalean.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR EMAKUMEZKOAK</b>
<b>TAKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:00. Usabal kir., Tolosan.
<b>SENIOR HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - BKL Senior tercera</b> Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.
<b>JUNIOR PARTE HARTZEA</b>
<b>Internacional - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 12:30. Mons Kir., Donostian.
<b>KADETE ERRENDIMENDUA</b>
<b>Ostadar SKT A - Alkiba Ointxe</b> Larunbata. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
<b>KADETE PARTE HARTZEA</b>
<b>Ostadar SKT B - Easo Lizeo</b> Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.

<b>PILOTA</b>
<b>UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA</b>
<b>Intza 2 - Gazteleku 1</b> Ostirala. 20:10. Michelin Kirol gunean.
<b>Intza 1 - Bergara</b> Ostirala. 20:10. Michelin Kirol gunean.
<b>IGERIKETA</b>
<b>KZL LIGA</b>
<b>Buruntzaldea IKT-ko benjamin mailako igerilariek KZL ligako 2. jardunaldia dute.</b> Larunbata. 15:30. Majori, kir., Ordizian.
<b>ESPAINIAKO TXAPELKETA</b>
<b>Nahia Zudairek Gazteen mailako Igeriketa Egokituko Espainiako AXA Txapelketan parte hartuko du, Euskadiko selekzioarekin.</b> Larunbata eta igandea. Valdemoro, Madril.
<b>LASTERKETA</b>
<b>NAZIOARTEKO KROSA</b>
<b>Lasarte-Oriako maila ezberdinetako korrikalariak 64. nazioarteko krosetan parte hartuko dute.</b> Igandea. 10:00. Hipodromo, Donostian.

<b>HERRI AMETSA TALAIA MENDI KROSA</b>
<b>Hainbat herritarrek Herri ametsa Talai Mendiko krosa lehiatuko dute.</b> Igandea. 10:00. Herri Ametsa ikast., Donostian.
<b>BTT</b>
<b>IRISASI BTT</b>
<b>Lasarte-Oriako hainbat txirrindularik Irisasi BTT "hotzak akabatzen" proban lehiatuko dute.</b> Igandea. 09:00. Usurbilen.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Babyauto Zarautz RT - Caleido Universidad Vigo</b> Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Babyauto Zarautz Beltzak - La Unica RT</b> Larunbata. 17:30. Michelin Kirol gunean.
<b>12 ETA 10 URTE AZPIKOAK</b>
<b>Federazioko jardunaldia dute.</b> Igandea. 10:30. Mutrikun.
<b>BOLA-JOKO</b>
<b>TALDEKO TXAPELKETA, FINALA</b>
<b>Gipuzkoako taldekako txapelketako finala jokatu da.</b> Igandea. Egun osoa. Michelin Kirol gunean.



Matrikula epea:  
urtarrilaren 28tik  
otsailaren 8ra



**50 urtez pertsonak banaka hezten**

*etor zaituzte  
gu ezagutzera*



**Santa Teresa  
Ikastetxea**

secretaria@donostia.teresiaskola.com  
www.donostia.teresiaskola.com  
Manuel Lardizabal, 25  
IBAETA-Donostia  
943 211 764

# Leire Martin, Euskal Herriko txapelduna


Lasarte-Oriako Maialen Chourraut igerilekuan jokatu dute Euskal Herriko luzera handiko txapelketa. Eneko Elizasu txapeldunorde izan da, eta Nora Imaz hirugarren. Nerea Santosek eta Aintzane Sarobek ere emaitzak ona eskuratu dituzte lehiaketan

## Txintxarri

Euskal Herriko distantzia luzeko txapelketak hartu zuen larunbatean Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekua. Bost lasarteoriatar lehiatu dira bertan, eta emaitza onak lortu dituzte. Gizonezkoek ekin zioten norgehiagokari. Eneko Elizasu izan zen Buruntzaldea IKT-ko lehen igerilaria. Hasieran neurria hartzea kostatu egin bazitzaion ere, proba "bikain" kudeatu zuela jakinarazi du Borja Apeztegia igeriketa taldeko arduradunak. 24 minutu eta 26 segundu behar izan zituen 2.000 metroko saioa amaitzeko. Marka pertsonal berria ondu du, eta txapeldunorde geratu da lasarteoriatar gazteak.

Emakumeen txanda izan zen gero. Nora Imaz, Nerea Santos eta Aintzane Sarobe igerilariak "gogotsu" aritu ziren eta marka pertsonal berriak lortu dituzte hauek ere. Imaz hirugarren sailkatu zen.

Aintzane Sarobek 26 minutu eta segundu bat behar izan ditu 2.000 metroko proba amaitzeko, baina 1.500 metrora iristean, marka pertsonala ere lortu du (19:21,39). Nerea Santosek, berriz, distantzia eta erritmo "altuagoan" egin du proba. 25 minutu eta 35 segunduko denboran amaitu du



Buruntzaldea IKT-ko igerilaria. TXINTXARRI

saioa, eta Aintzane bezala, 1.500 metroan marka hobetu du (19:06,38)

Guztietan azkarrena Nora Imaz izan zen; 25 minutu eta 28 segundu behar izan ditu proba osatzeko, eta 2.000 metrokoan zein 1.500 metrokoan marka pertsonala lortzeaz gain, 14 urteko errekor berriak ezarri ditu.

## 3000 metrotan

Leire Martinek parte hartu du 3.000 metroko proban eta 36 minutu eta 23 segundu behar izan ditu saioa amaitzeko.

Denbora horrekin, 16 urteko errekor berria ezarri du, eta baita 2000 metroko pasean (24:08,17); 1500ekoan (18:04,67); 800ekoan (9:34,10) eta 400 metrokoan ere (4:44,44). Junior mailan "erabat nagusi" izan da eta absolutu mailako sailkapen orokorrean bigarren emakume azkarrena izan da.

Bestalde, Nahia Zudairek Gazteen mailako Igeriketa Egokituko Espainiako AXA Txapelketan parte hartuko du, Valdemoron, bihar eta etzi, Euskadiko Selekzioarekin.



Beñat Carbayeda Buruntzazpiko txirrindularia podiumean. EUGENIO POZO

## Espainiako Kopako lehen saioak jokatu ditu Buruntzazpik

Euskadiko Selekzioarekin Mallorcan izan dira Beñat Carbayeda, Asier Pozo eta Jaime Romero txirrindulariak

## Txintxarri

Mallorcan jokatu dituzte, urtarrilaren 19an eta 20an, Espainiako Kopako lehen saioak, eta bertan aritu dira Lasarte-Oriako Buruntzazpiko hiru txirrindulari.

Kadeteen mailan, Beñat Carbayeda bigarren postuan dago, asteburuko probetan postu berean amaitu eta gero.

Junior kategorian, Asier Pozok asteburuko kanporaketan laugarren amaitu du, eta sailkapen orokorrean ere laugarren postuan dago. Jaime Romerok ere saio ona egin du.

Horrela, Euskal Selekzioak 202 puntu lortu ditu, eta Balearetako selekzioaren atzetik (234 puntu) bigarren postuan sailkatu dira.

## Bola Txapelketako finala jokatu dute Michelingo bolatokian

Emakumezko eta gizonezkoen finalerdiak eta finalak jokatu dituzte larunbatean, Michelingoan. Goizeko 08:30ean hasiko dira jokatzeko txandak zehaztuko dituzten zozketak egiten.

Gizonezkoak arituko dira lehenik. Ategorrietak, Segurak,

Urnietak eta Legazpiak neurtuko dituzte indarrak finalerdietan. Bi talde garaileek jokatu dute finala gero.

Emakumezkoen finalerdietan-finalean, berriz, Zeraingo bi talde, Villabona eta Gabiria lehiatuko dira, eta hemen ere, bi talde garaileek neurtuko dituzte indarrak finalean.

Lasarte-Oriako Ostadar taldea Aian arituko da, igandean, bikotekako txapelketan.

## Triatloi federatu berriak lortzeko kanpainen lanean ari da Trinko

Gipuzkoan jaitsi egin da triatleten kopurua, eta egoera hori iraultzeko jarri dute martxan egitasmo berria

## Txintxarri

Laster hasiko da triatloi denboraldia, eta kirol hori sustatu eta jendea lizentziak egitera animatzeko kanpainen parte hartzen ari da Lasarte-Oriako Trinko Triatloi Taldea.

Gipuzkoako Triatloi Federazioak jarri du martxan egitasmoa, eta lasarteoriatarrekin batera, beste sei kirol talde ere ari dira: Aloña Mendi, Azkoitri Triatloi Kluba, Deba Extrem, Ordizia Triatloi Taldea, Zarautz

Triatloi Elkartea eta Nik Tri Triatloi Taldea. Horrela, edozein zalantza edo informazio jaso nahi duenak, Trinkora jo dezake.

## Ezinbesteko baldintza

Gipuzkoako Triatloi Federazioak azaldu du Euskadiko proba ofizialetan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza dela lizentzia edukitzea.

Lasarteoriatarrek martxoa aldera egingo dute urteko lehen saioa, Eibarren ziuurrenik.



Trinko Triatloi taldeko kideak. TXINTXARRI

## ZORION AGURRAK



Irati

Zorionak bihotza!  
Disfrutatu zure eguna!  
Hamaika muxu erraldoi  
zure sendearen partetik.  
Maite zaitugu!



Aroa eta Izar

Zorionak Arolopirolo eta Izartxibiri!!! Ondo pasa zuen egunean. Parranda ederra botako dugu zuen kontura!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 25 LASA  
Larunbata, 26 GIL  
Igandea, 27 GIL  
Astelehena, 28 ACHA-ORBEA  
Asteartea, 29 GIL  
Asteazkena, 30 URBISTONDO  
Osteguna, 31 GANDARIAS-URIBE

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## JAIOTAKOAK

**Eider Ardao Lopez.** Urtarrilaren 17an.  
**Beñat Arrizabalaga Mendez.** Urtarrilaren 13an.

## HILDAKOAK

**Maria Angeles Ormazabal Goenaga.** Urtarrilaren 20an.  
**Mentxu Duran Salado.** Urtarrilaren 20an.  
**Carlos Saez Anton.** Urtarrilaren 19an.


## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9  
43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERRI AEK: 607 625 233


**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 25




Larunbata, 26



Igandea, 27



Astelehena, 28



Asteartea, 29



Asteazkena, 30



## OHARRAK

**EHko Mus txapelketako kanporaketa**

XI. Mus txapelketako Lasarte-Oriako kanporaketa otsailaren 1ean jokatu da, Xirimiri elkartearen, 22:00etatik aurrera. Izen ematea egunean bertan egingo da eta bikote bakoitzak 20 euro ordainduko ditu. Bikote sailkatuak otsailaren 23an lehiatuko du Gipuzkoako finala.

Euskal Herriko txapelketako finala Lizarran izango da martxoaren 16an. Txapeldunak, besteak beste, 3.000 euroko saria eta Karibera lau laguntza bidaia eskuratuko ditu. Lehiaketan Euskal Herriko mus federazioak txapelketarako zehazki ezarritako arauak jarraituko dira.

**Haurrei lehen sorospenak egiteko ikastaroa**

Gurutze Gorriak umetxo eta haurrei oinarrizko lehen sorospenak egiteko ikastaroa antolatu du otsailaren 2 eta 3an. Saiok 9:00etatik 14:00etara izango dira Lasarte-Oriako Gurutze Gorriko ikasgelan. Prezioa 45 eurokoa da eta plazak mugatuak dira. Izena emateko edo ikastaroari buruz informazio gehiago jasotzeko bidali mezua [lasarte@cruzroja.es](mailto:lasarte@cruzroja.es) helbidera edo deitu 607 573 335 telefono zenbakira.

**Meka Lekuren 25. urteurrena**

Aurten, 2019an, Meka Leku akademiak 25 urte betetzen ditu ateak lehen aldiz zabaldu zituenetik. Ospatzeko, hainbat ekitaldiren artean, *Memoria* liburu bat sortu nahi du, Meka Lekuko ikasle ohien esperientziak, bitxikeriak edo pasadizoak biltzen dituena. Horretarako, honako posta elektronikoa ireki du: [nimekalekun@gmail.com](mailto:nimekalekun@gmail.com).

Anima zaituz, eta kontatu nahi duzuna; zure oroitzapenak, bitxikeriaren bat... ahaztu ez duzun zerbait, ikasitakoa.

**II. Bidaien diaporama lehiaketa**

Urnietako Gazte Informazio puntuak II. Bidaien diaporama lehiaketa jarri du abian. Lehen sarituak 300 euro eskuratuko ditu. Buruntzaldeako udaletako gazteek parte hartu dezakete, betiere, 2003. urtea baino lehenago jaiotakoak badira.

Izena emateko eta lanak aurkezteko epea gaur amaitzen da. Izena ematea Lekaio kultur etxean, zein Gazte Informazio Puntuan edo Urnietako udalaren webgunean egin daiteke.

**Txuri Urdin-era etorriko gurekin? OTSAILAREN 2an plan-plin-plana!!**

LH3-LH4-LH5  
eta LH6



Izena emateko epea: Urtarrilaren 30a, barne. Plazak mugatuak dira.  
Eramanbeharrekoak: Merienda, galtzerdi potoloak eta KASKOA!! (Txirrinda)  
Irteera: 16:00etan. Buelta: 19:30etan. Zumaburuko autobus geltokian.  
Prezioa: 15 € Ttakuneko ez bazkideak eta 12 € Ttakuneko bazkideak  
Anima zaituz primeran pasako dugu eta!



Geltoki kalea 4, behea  
[aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus)  
695 785 392

@TtakunKE

KOMIKIA

HAUXE BAI JENERDAI

**OSAKIDETZAKO OSASUN ZENTRO BATEAN, ZEINAREN IZENAZ EZ DUDAN AKORDATU NAHI, BAZEN BEHIN...**

000

APAIZEN GELA

Sala de Curas

Osasun Zentroan arazorik ez izateko analisi eta gainerako probetako zitekin EZINBESTEKOA DA zita eskatzea bolanteak eduki bezain laster ter...

@garbineubeda

AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

**ALOKAIRUAN EMAN**

Usurbilen pisua alokatzen da, 2 gela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa ditu. Dena kanpoaldera. Hiru balkoi eta igogailua ditu. Telefono zenbakia: 670 070 562.

**LANA**

**ESKARIA**

Pertsona arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 671 79 54 84

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Telefonoa: 663 488 438.

Astelehenetik ostiralera lan egingo nuke. Telefonoa: 606 97 36 88.

Interna gisa lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 687 355 095.

**SALEROSKETA**

**EROSKETA**

Ondo dagoen josteko makina erosiko nuke, lan txikiak egiteko. 687 355 095

**NABARMENDU ZURE EDUKIA**

IRAGARKI

nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**

Irati Zatarain.

**Laguntzaileak**

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzzaileak**

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Ibarburu, Naiara Goikoetxea.

**Informatika zerbitzuak**

IZT Informatika.

**PUBLIZITATEA**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 25

### DONOSTIA Kontzertua

Kurtag boskotea emanaldia eskainiko du. *Musiklasik* programako saioa da. Aieteko Kultur etxea, 19:00etan.

### DONOSTIA Antzerkia

CDNk Josep Maria Flotatsen zuzendaritzapean, *Voltaire / Rousseau. La disputa* lana eskainiko du ostiral eta larunbatean. Sarrera, 7,20 eurotik 20 eurora.

Victoria Eugenia antzokia, 20:00etan.

### ANDOAIN Antzerkia

*Lo Mejor de Yllana* ikuskizuna eskainiko da. Yllana taldeak 25 urtetan taula gainean izandako unerik onenak berrikusiko ditu emanaldiak. Sarrera, 15 euro.

Bastero Kultur gunea, 21:30ean.

## LARUNBATA 26

### USURBIL Prozesu parte hartzailea

*Txirikorda*, belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren egitasmoa definitzeko prozesu parte hartzailea antolatatu dute. Gazteei eta adinduei zuzendua egongo da. Lehen saio honetan Etxebizitzaren izaera orokorra izango da aztergai. Potxoenea, 10:30etik 12:30era.

### HERNANI Haur antzerkia

*Benetan be* haur antzerkia izango da. Umorea eta poesia, musika zuzenean eta panpinak, euskara eta ingelesa uztartuz, jakinmina eta desobediencia sustatzen dituen haurrentzako antzezlan da; 4 urtetik gorakoentzat. Sarrera, 3 euro.

Biteri Kultur etxea, 12:00etan.

### ANDOAIN Musua ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurrien *Musua* ikuskizun berriaz gozatu ahalgo dute etxeko txikiak. Sarrera, 6 euro.

Bastero Kultur gunea, 16:00etan.

### DONOSTIA Tailerra

*Gure haizuloetako lehoiak* tailerra egingo da. Arrikutzeko koban aurkitutako lehoiaren garezurra berregingo du Cova Orgaz eskultorearen laguntzaz. 6 eta 12 urte arteko gazteboei zuzendua. Familiako 5 euro.

San Telmo museoa, 19:00etan.



**LASARTE-ORIA Bizikidetzaren jardunaldiak.** Jardunaldiei amaiera emateko, *Gazteria, memoria eta transmisioa* mahai ingurua egingo da; Eider Gantxegi eta Iker Usón izango dira moderatzaileak. Gantxegi Euskadiko Gazteria Kontseiluaren Bake eta Bizikidetzaren teknikaria da. Euskal Literaturan biktimek izandako errekonozimendua landu du bere doktore tesian. Usón gizarte langilea da, eta bakegintzan espezializatua dago. Lasarte-Oriako Udalarekin elkarbizitzako hainbat proiektutan egin du lan.

Villa Mirentxu, asteazkena, 19:30ean.

### DONOSTIA Haur antzerkia

*Errekamari* haur antzerkia eskainiko du Txobongillo taldeak txalapartaren doinuak lagundurik. 4 urtetik gorakoentzat. Sarrerak dohainik jaso daitezke Kultur Etxean bertan, emanaldiaren egun berean, ordubate aurretik.

Aieteko Kultur etxea, 19:00etan.

### ASTIGARRAGA Ikuskizuna

Txomin Heguy antzezleak, Xabi Zeberio eta Mixel Ducau musikari eta Alaia Philips Ducau abeslariarekin batera *Anton Abbadia: Dublinetik Hendaiara* ikuskizuna eskainiko dute. Antzerkia eta musika uztartuz, Abbadia egindako bidaiak ikusi ahalgo dira. Sarrera, 6 euro helduak eta 3 euro haurrak.

Kultur etxea, 20:00etan.

### DONOSTIA Ikuskizuna

Shakespearearen klasiko unibertsalean oinarritutako *Julieta, Romeo Circo* ikuskizuna eskainiko du Markeliñek. Gorputz-antzerkia, fisikoa eta keinu antzerkia. Zirkua hizkuntzarekin kontatutako klasiko bat. Sarrera, 10 euro. Gazteszena, 20:00etan.

## IGANDEA 27

### LASARTE-ORIA Plaza dantza

Muxiko eta plaza dantzekin gorputza mugitzeko aukera izango da. Eguraldi txarra eginez gero, BMko aterpean egingo da.

Okendo plaza, 12:00etatik 14:00etara.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Eitbko teleailean oinarritutako *Go!azen 5.0* ikuskizunaz gozatu ahalgo dute gazteak. Basakabik ateak zabaldu ditu, Zuzen buru duela. Eta honekin batera, abentura, maitasun istorio eta lagunaren arteko kontu berriak sortuko dira. Sarrerak agortuta daude.

Manuel Lekuonan, 18:00etan.

## ASTEAZKENA 30

### LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

HH3 eta HH4 mailako haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saio berezia izango da. Eskulanak egin, olerkiak ikasi eta abestiak kantatuko dituzte ipuineko kontzeptuak lantzeko.

Villa Mirentxu, 17:45ean.

### LASARTE-ORIA Jardunaldiak

Irene Gantxegik eta Iker Usonek *Gazteria, memoria eta transmisioa* mahai ingurua gidatuko dute. *Bizikidetzaren* jardunaldietako ekintza da.

Villa Mirentxu, 19:30ean.

### HERNANI Ipuinaren aurkezpena

*Txori txikia eta krokodiloa* ipuinaren aurkezpena egingo da. Unai Agirre, Eñaut Agirre, Jexux Eizagirre eta Boubia aktoreek ikuskizun txiki bat eskainiko dute. Euskaraz eta wolof hizkuntzan egingo da.

Biteri Kultur etxea, 19:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Dogman (JBGA)**  
Ostirala: 22:00

### ANDOAIN

#### BASTERO

#### Aquaman

Larunbata: 17:00.

Igandea: 17:00.

#### Pumori, mendiaren alaba

Asteartea: 19:00.

### USURBIL

#### SUTEGI

#### Dantza

Igandea: 19:00.

### URBIL

#### Creed II: La leyenda de Rocky

Ostirala:

16:30, 19:15,

22:00, 00:45.

Larunbata:

16:30, 19:15,

22:00, 00:45.

Igandea: 16:30,

19:15, 22:00.

#### Familia al instante

Ostirala:

16:15, 18:45,

21:20, 23:50.

Larunbata:

16:15, 18:45,

21:20, 23:50.

Igandea: 16:15,

18:45, 21:20.

#### Gente que viene y bah

Ostirala:

18:30, 20:40,

22:50, 01:00.

Larunbata: 20:40,

22:50, 01:00.

Igandea: 19:30,

20:40, 22:50.

#### Glass (Cristal)

Ostirala:

16:20, 19:05,

21:45, 00:30.

Larunbata:

16:20, 19:05,

21:45, 00:30.

Igandea: 16:20,

19:05, 22:15.

#### La favorita

Ostirala: 19:35,

22:05, 00:40.

Larunbata: 18:15,

21:00, 23:30.

Igandea:

19:35, 22:05.

#### Aquaman

Ostirala: 16:00,

18:55, 21:45.

Larunbata: 16:00,

19:00, 21:45.

Igandea: 16:00,

18:55, 21:45.

#### Bohemian Rhapsody

Ostirala: 19:15,

22:00, 00:40.

Larunbata: 19:15,

22:00, 00:40.

Igandea:

19:15, 22:00.

#### Ralph Rompe Internet

Ostirala:

15:50, 18:15.

Larunbata:

15:50, 18:15.

Igandea:

15:50, 18:15.

#### El regreso de Mary Poppins

Ostirala: 16:30.

Larunbata: 16:30.

Igandea: 16:30.

#### Astérix: El secreto de la poción mágica

Ostirala:

15:45, 17:40 (eusk.).

Larunbata:

15:45, 17:40 (eusk.).

Igandea:

15:45, 17:40 (eusk.).

#### El vicio del poder

Ostirala:

20:45, 23:30.

Larunbata:

20:45, 23:30.

Igandea: 21:45.

#### Eliminado: Dark Web

Ostirala: 00:45

Larunbata: 00:45

Igandea: 22:15.

#### Spider-Man: Un Nuevo Universo

Ostirala: 16:00.

Larunbata: 16:00.

Igandea: 16:00.



### LABURPENA

#### Dogman (JBGA)

**Zuzendaria:** Matteo Garrone. **Gidoilariak:** Maurizio Braucci, Ugo Chiti, Matteo Garrone, Massimo Gaudioso. **Herr.:** Italia (2018). **Antzezleak:** Marcello Fonte, Edoardo Gero, Nunzia Schiano, Adamo Dionisi, Francesco Acquaroli, Alida Baldari Calabria, Gianluca Gobbi, Aniello Arena. **Iraupena:** 102 minutu.


## Harreman arriskutsuen ondorioak

Matteo Garrone, *Gomorra* filmeko zuzendariak, berriro ere jazotako gertakari bat hartzen du oinarri filma grabatzeko. 1988an, Pietro de Negri txakurren ilepintzaile eta drogazaleak, Er Canaro ezinez ezagunak, gaizkile ezagun bat hil zuen Erroman. Garronek istorioaren bere bertsioa aurkezten du *Dogman* filmean.

Erromako aldirietan bizi da Marcello. Lokal txiki batean txakurren ilepintzaile lanak egiten ditu. Alaba du eta etorkizunean elkarrekin bidaia bat egingo dutela zin egin dio. Diru gehiago lortzeko droga saltzen du.

Simone boxeolari ohiarekin harreman arriskutsua hasten du. Honek auzotar guztiak beldurtuak ditu bere biolentziarengatik. Marcellok ere jasaten ditu bere haserrealdiak. Gertaera batek bere bizitza guztiz aldatzen du eta mendekua du buruan.

Filma nazioarteko hainbat zinemaldietako sail nagusian lehian izan da. Marcello Fronte aktorearen lanak hainbat sari eskuratu ditu, hala nola, Cannesko Zinemaldian edo Europako Zinema Sarietan. Azken honetan, jantzi eta makillaje sariak ere lortu zituen.



# Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

*Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona*



- Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu, geureak direlako
- Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak elkarrekin joateko
- Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez
- Ingelesa: atzerrira begira
- Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria, informatika... gure tresnak dira
- Behar berezia duten ikasleentzako: gertuko jarraipena eta aholkulariak
- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak
- Eskola ordutik kanpoko jarduerak
- Goiz txoko zerbitzua
- Jangela zerbitzua
- Garraio zerbitzua



**MATRIKULAZIO EPEA:**  
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

**BILERA EGUNA:**  
Urtarrilaren 29an, 17:00etan  
Zumaburuko jangelan

Kalbario bidea 4, Tel. 943 36 12 26  
Zumaburu 13, Tel. 943 36 22 74  
sazu.zuzendaritza@gmail.com

